

ARROKA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA OSAKETA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA

1. ARTIKULUA

Estatutu hauek adosten dituzten artean 1901eko uztailaren 1eko legea eta 1901eko agorrilaren 16ko dekretuaren arabeko elkarte bat sortzen da, ondoko titulu pean:

ARROKA EUSKAL KULTURAREN ETA EUSKARAREN ALDE, MIARRITZEN

2. ARTIKULUA - Xede soziala

Elkarte honen helburua ondokoa da:

Herri hezkuntza, euskara, euskal kultura eta kirolaren zaintza eta garapena MIARRITZEN.

3. ARTIKULUA - Egoitza soziala

Egoitza soziala ondoko helbidean finkatua da:

Biarritz, 33 Allée du Moura – Biarritze, Moura Etorbidea, 33.

Administrazio kontseiluaren erabaki sinple baten bitartez alda daiteke; Biltzar Nagusiaren berrespena beharrezkoa izanen da.

4. ARTIKULUA - Iraupena

Elkartearen iraupena ez da mugatua.

II. TITULUA OSAKETA

5. ARTIKULUA - Kideak

Elkartea ondokoez osatua da:

a) Kide ongileak,

Kide ongileak, Biltzar Nagusiak urte guziz finkatu urtesaria ordaintzen duten pertsonak dira.

b) Kide aktiboak.

Kide aktiboak, Biltzar Nagusiak urte guziz finkatu urtesaria ordaintzera engaiamendua hartu eta elkartearen jardueretan erregulariki parte hartzen duten pertsonak dira.

c) Ohorezko kideak

Ohorezko kideak dira, elkarteari zerbitzu adierazgarriak eskaini dituztenak; ez dute urtesaririk ordaintzen.

Guziek bozkatzeko eskubidea dute Biltzar Nagusian.

18 urte petiko kideek, gurasoen baimen bat ekarri behar dute.

6. ARTIKULUA – Kide izateko

Elkarteko kide izateko, hemengo estatutuak onartu behar dira, haien osotasunean, eta Biltzar Nagusiak urte guziz balidatu Administrazio Kontseiluak finkatu duen urtesaria ordaindu.

Urtesaria berriz ordaindu behar da Biltzar Nagusiaren ondoko hilabetean.

7. ARTIKULUA - Kanporatzea

Ondoko arazoengatik gal daiteke kide izaera:

a) dimisioa,

b) heriotza,

c) Administrazio Kontseiluak hartu kanporatzeko erabakia, urtesaria ez ordaintzeagatik edo arrazoi larri bate, elkarteari eta honen kideei kalte ekarri diena, edo elkartearen helburuen arabera ez den jokabidea, bulegoari azalpenak emateko gomita gutun ziurtatu baten bidez pertsonari helarazi ondoren.

III. TITULUA

KUDEAKETA ETA IBILMOLDEA

8. ARTIKULUA – *Ohizko Biltzar Nagusia*

Ohizko Biltzar Nagusiak Elkarteko kide guziak biltzen ditu, 16 urte bederen dituztenak barne, haien urtesaria ordaindua badute.

Urte guziz urrian biltzen da, bilan morala, jarduera txostena eta diru txostena bozkatzeko.

Finkatu data baino hamabost egun lehenago bederen, idazkariak deitzen ditu elkarteko kideak.

Lehendakariak, Administrazio Kontseiluko kideek lagundurik, biltzarra zuzendu eta elkartearen egoera morala aurkezten du.

Diruzainak bere kudeaketaren berri ematen du eta bilana biltzarraren onespenerako aurkezten. Diru txostenean, Kontseiluko kideei pagatu kargu, bide edo ordezkartza xahutzeen ordainketa agertu beharko da.

Gai ordenan idatziak diren puntuak baizik ez dira aipatuko.

Biltzarrean berean edo ordezkatuak diren kideen bozen gehiengoarekin hartzen dira erabakiak (bozen gehiengoa). Biltzarrek, haien erabakien bitartez, kide guziak, hor ez direnak barne, behartzen ditu.

9. ARTIKULUA – *Administrazio Kontseilua*

Elkartea 8 eta 12 kideko Zuzendaritza Batzordeak kudeatzen du.

Biltzar Nagusiak bi urterako hautatu kide kontseilu batek – Administrazio Kontseiluak – zuzentzen du Elkartea. Kideak berriz hautatuak izaten ahal dira.

Administrazio Kontseiluko kideek 16 urte ukan behar dute bederen.

Administrazio Kontseiluko kideen % 50 bederen adin nagusikoak izan behar dira eta haien eskubide zibil eta politikoez gozatu behar dute.

Administrazio Kontseiluaren hautaketa bozketa sekretubaten bidez egiten da, hurrengo modalitate hauen arabera:

- Eskaeak idatziz (gutunez edo mailez) jasotzen ditu azken bulegoak, biltzar nagusia baino 10 egun lehenago;
- Bulegoak hautagai-zerrenda ordena alfabetikoan adierazten duten boto-txartelak prestatzen ditu.
- Hautesleen zerrenda azken bulegoak egiten du;
- Kide batek eskumen bat edo gehiago errezibi ditzake, gehienez hiru.
- Bi ikuskatzailek bulegoa laguntzen dute bozketa eta azterketa momentuetan.
- Hautesle bakoitzak bere bozketan izen bat edo gehiago ezabatzeko hautua du.
- Boto gehien jaso dituzten hautagaiak (hamabiko mugaren barne) aukeratuak dira, baldin eta boto horiek hautesleen % 50 baino gehiago ordezkatzeko dute.

Administrazio Kontseiluak bozketa sekretu baten bidez hautatzen du, bi urterako, horrela osatua den bulego bat:

- Lehendakari bat, behar balitz presidenteorde bat
- Diruzain bat, behar balitz diruzainordea
- Idazkari bat, behar balitz idazkariorde bat.

10. ARTIKULUA – *Administrazio Kontseiluaren bilkura*

Administrazio Kontseilua, hiru hilabetetatik behin bederen biltzen da, Lehendakariak deia zabaldurik edo kideen laurdenak hala eskaturik.

Erabakiak bozen gehiengoaz hartzen dira ; berdintasuna gertatuz gero, Lehendakariaren boza erabakigarria da.

11. ARTIKULUA – *Ordain saria*

Administrazio Kontseiluko zereginak benetakoak dira. Administrazio Kontseiluko kideek ez dute neholako ordain saririk hartu behar. Kide urgazle ordainduak, Kontseilu edo Biltzarreko saioetan aholku-bozkarekin baizik ez dute parte hartzen ahal.

12. ARTIKULUA – *Ez ohizko Biltzar Nagusia*

Ez ohizko Biltzar Nagusi bat osatzen ahal da hala behar izanez gero, edo idatziz sartuak diren kideen erdia gehi batek eskatuz gero, Lehendakariak Ez ohizko Biltzar Nagusi batera dei dezake.

Gai ordena, estatutuen aldaketa edo desagitea da.

Biltzarrean berean edo ordezkatuak diren kideen bozen gehiengoarekin hartzen dira erabakiak (bozen gehiengoak).

13. ARTIKULUA – *Barne Araudia*

Administrazio kontseiluak biltzar nagusiari onetsarazi barne araudi bat finka dezake.

Menturazko araudi honen xedea, estatutuetan aurreikusiak ez diren puntu desberdinak finkatzea da, besteak beste elkarrearen barne kudeaketari dagozkionak.

IV. TITULUA
BALIABIDEAK

14. ARTIKULUA – *Elkarrearen baliabideak*

Elkarrearen baliabideetan sartzen dira:

- urtesarien zenbatekoa,
- Estatua eta Lurralde Elkargoen diru laguntzak
- eta legeak baimentzen dituen beste baliabide guztiak.


V. TITULUA
DESEGITEA

15. ARTIKULUA – *Elkarrearen desagitea*

Ez Ohizko Biltzar Nagusian dauden kideen bi herenek bederen erabaki desagitearen kasuan, honek likidatzaile bat edo bi izendatzen ditu eta aktiboa, hala gertatuz gero, antzeko xedeak dituen elkarte bati ematen zaio, legearen arabera.

Biarritzen egina, 2024ko ekainaren 8an

Lehendakaria



Maryse MALO

Idazkaria



Jean Michel STRIL

STATUTS DE L'ASSOCIATION ARROKA

TITRE I CONSTITUTION, OBJET, SIEGE SOCIAL

ARTICLE 1er

Il est fondé entre les adhérents aux présents statuts une association régie par la loi du 1er juillet 1901, et le Décret du 16 août 1901, ayant pour titre :

ARROKA

EUSKAL KULTURAREN ETA EUSKARAREN ALDE, MIARRITZEN

ARTICLE 2 - Objet social

Cette association a pour but :

L'éducation populaire, la sauvegarde et le développement de la langue, de la culture et du sport basque à BIARRITZ.

ARTICLE 3 - Siège social

Le siège social est fixé à :

Biarritz, 33 allée du Moura.

Il pourra être transféré par simple décision du conseil d'administration; la ratification par l'Assemblée Générale sera nécessaire.

ARTICLE 4 - Durée

La durée de l'association est illimitée.

TITRE II COMPOSITION

ARTICLE 5 - Les membres

L'association se compose de :

d) Membres bienfaiteurs.

Sont membres bienfaiteurs les personnes qui versent une cotisation fixée chaque année par l'Assemblée Générale.

e) Membres actifs ou adhérents.

Sont membres actifs, ceux qui ont pris l'engagement de verser annuellement une cotisation fixée par l'Assemblée Générale et qui participent régulièrement aux activités de l'association.

f) Membres d'honneur

Sont membres d'honneur, ceux qui ont rendu des services signalés à l'association ; ils sont dispensés de cotisations.

Tous ont le pouvoir de vote à l'Assemblée Générale.

Les membres âgés de moins de 18 ans doivent produire une autorisation parentale.

ARTICLE 6 - Adhésion

Pour faire partie de l'Association, il faut adhérer aux présents statuts, dans leur intégralité, et s'acquitter de la cotisation dont le montant, fixé par le Conseil d'Administration, est validé chaque année par l'Assemblée Générale.

Le renouvellement de la cotisation doit être effectué dans le mois qui suit l'Assemblée Générale.

ARTICLE 7 - Radiation

La qualité de membre se perd par :

a) la démission,

- b) le décès,
- c) la radiation, prononcée par le Conseil d'Administration, pour non-paiement de la cotisation ou pour motif grave, portant préjudice à l'association et à ses membres, ou pour comportement non conforme aux objectifs de l'association, l'intéressé ayant été invité préalablement, par lettre recommandée à se présenter devant le bureau pour fournir des explications.

TITRE III

ADMINISTRATION ET FONCTIONNEMENT

ARTICLE 8 - Assemblée Générale Ordinaire

L'Assemblée Générale ordinaire réunit tous les membres de l'Association y compris ceux âgés de 16 ans au moins, à la condition qu'ils aient acquitté leur cotisation annuelle.

Elle se réunit chaque année au mois d'octobre, pour voter le bilan moral, le rapport d'activités et le rapport financier.

Quinze jours, au moins, avant la date fixée, les membres de l'association sont convoqués par les soins du secrétaire.

Le président, assisté des membres du Conseil d'Administration, préside l'Assemblée et expose la situation morale de l'association.

Le Trésorier rend compte de sa gestion et soumet le bilan à l'approbation de l'Assemblée. Le rapport financier devra faire mention du remboursement des frais de mission, de déplacements ou de représentations, payés à des membres du Conseil.

Ne peuvent être abordés que les points inscrits à l'ordre du jour.

Les décisions sont prises à la majorité des voix des membres présents ou représentés (à la majorité des suffrages exprimés).

Les Assemblées obligent par leurs décisions tous les membres, y compris les absents.

ARTICLE 9 - Le Conseil d'Administration

L'Association est dirigée par un **Conseil d'Administration** de 8 à 12 membres.

Le conseil d'administration est élu pour deux années par l'Assemblée Générale. Les membres sont rééligibles.

Les membres du Conseil d'Administration doivent être âgés de 16 ans au moins.

50% au moins des membres du Conseil d'Administration doivent être majeurs et jouir de leurs droits civils et politiques.

L'élection du Conseil d'administration s'opère à bulletins secrets, selon les modalités qui suivent :

- Les candidatures sont reçues par écrit (lettre ou mail) par le Bureau sortant, 10 jours ouvrés minimum avant l'assemblée ;
- Le Bureau prépare des bulletins de vote indiquant la liste des candidats par ordre alphabétique.
- La liste des électeurs est arrêtée par le bureau sortant ;
- Un membre peut recevoir un ou plusieurs pouvoirs dans la limite de trois.
- Deux scrutateurs assistent le bureau pour les opérations de vote et de dépouillement.
- Chaque électeur a la possibilité de rayer un ou plusieurs noms sur son bulletin.
- Sont élus les candidats (dans la limite de douze) ayant reçu le plus de votes, sous réserve que ces votes représentent plus de 50% des votants.

Le Conseil d'Administration élit à bulletin secret, pour deux ans, un **bureau** composé de :

- un Président, éventuellement un vice-président
- un Trésorier, éventuellement un trésorier adjoint

- un Secrétaire, éventuellement un secrétaire adjoint.

ARTICLE 10 - Réunion du Conseil d'Administration

Le Conseil d'Administration se réunit, une fois au moins, par trimestre, à la convocation du Président ou sur la demande du quart de ses membres.

Les décisions sont prises à la majorité des voix ; en cas de partage, la voix du Président est prépondérante.

ARTICLE 11 - Rémunération

Les fonctions des membres du Conseil d'Administration sont bénévoles. Les membres du Conseil d'Administration ne doivent recevoir aucune rétribution. Les collaborateurs rétribués ou indemnisés ne peuvent assister aux séances du Conseil ou de l'Assemblée qu'avec voix consultative.

ARTICLE 12 - Assemblée Générale extraordinaire

Une Assemblée Générale Extraordinaire peut être constituée en cas de besoin, ou sur la demande de la moitié plus un des membres inscrits, le Président peut convoquer une Assemblée Générale Extraordinaire.

L'ordre du jour est la modification des statuts ou la dissolution.

Les décisions sont prises à la majorité des voix des membres présents ou représentés (à la majorité des suffrages exprimés).

ARTICLE 13 - Règlement intérieur

Un règlement intérieur peut être établi par le conseil d'administration qui le fait alors approuver par l'assemblée générale.

Ce règlement éventuel est destiné à fixer les divers points non prévus par les statuts, notamment ceux qui ont trait à l'administration interne de l'association.

TITRE IV RESSOURCES

ARTICLE 14 - Les ressources de l'association

Les ressources de l'Association comprennent :

- le montant des cotisations,
- les subventions de l'Etat, et des Collectivités Territoriales
- et toutes autres ressources autorisées par la loi.


TITRE V DISSOLUTION

ARTICLE 15 - Dissolution de l'association

En cas de dissolution prononcée par les deux tiers au moins des membres présents à l'Assemblée Générale Extraordinaire, un ou plusieurs liquidateurs sont nommés par celle-ci et l'actif, s'il y a lieu, est dévolu à une association ayant des buts similaires, conformément à la loi.

Fait à Biarritz, le 08 / 06 / 2024

La Présidente



Maryse MALO

Le secrétaire



Jean-Michel STRIL